

#### *Bileraren izenburua*

DATUAK BABESTEKO EUSKAL AGINTARITZAREN LEHENDAKARIAK, KARRERAKO FUNTZIONARIOEI GORDETAKO LANPOSTU BATZUK BETETZEKO, 2024KO URRIAREN 18KO EBAZPENAREN BIDEZ DEITUTAKO LEHIAKETAREN BALORAZIO-BATZORDEA.

<i>Tokia</i>	<i>Data</i>	<i>Hasiara-ordua</i>	<i>Amaiera-ordua</i>
DBEAren bilera-gela	2025-03-06	12:00	12:25

#### *Bertaratuak*

Batzordeburu titularra: Eduardo Jacob Taquet jauna – Datuak Babesteko Euskal Agintaritzako Kontseilu Aholku-emaileko kidea (online esku hartu du)

Batzordekide titularra: Juan Carlos Barredo Salazar jauna

Idazkari titularra: Ainara Ugalde López andrea (online esku hartu du)

#### *Gai-zerrenda*

1. Lehiaketan aurkeztutako proiektua aldeztea eta baloratzea:
  - a. Eragin Teknologikoen eta Segurtasun Arriskuen Unitateko arduraduna -12:00
2. Esleitzeko behin-behineko proposamena egitea, hala badagokio.
3. Balorazio-batzordearen hurrengo bileraren deialdia egitea.

#### *Aztertutako gaien laburpena*

##### **Aitor Iriarte Goikoetxea jaunak lehiaketan aurkeztutako proiektua aldeztea eta baloratzea**

Balorazio-batzordea 12:00etan bildu delarik, Aitor Iriarte Goikoetxea jauna «Datuak Babesteko Euskal Agintaritzako eragin teknologikoak eta segurtasun arriskuak ebaluatzeko unitatearen kudeaketa-memoria» izenburuko proiektua aurkezten hasi da. Azalpen xehea eman du eta, galderetarako txandaren ostean, aurkezpena 12:25ean amaitu da.

Deialdiaren oinarrien arabera, Eragin Teknologikoen eta Segurtasun Arriskuen Unitateko arduradunaren lanpostuaren dimentsioak, gehienez 10 puntuko ebaluazioarekin, honako hauek dira:

- 1.- Memoriaren azalpena, edukia komunikatzeko trebetasuna
- 2.- Memoriaren kalitatea
- 3.- Laburtzeko gaitasuna eta arazoak, informazioa eta konponbideak identifikatzekoa
- 4.- Gaiari buruzko ezagutza
- 5.- Egiten zaizkion galderei emandako erantzunak



### Aztertutako gaien laburpena

Batzordekide guztiek ados jarrita eman duten puntuazioa:

	<b>BALORAZIO OSOA (0→10)</b>
Aitor Iriarte Goikoetxea	7

#### 1. Esleitzeko behin-behineko proposamena egitea, hala badagokio.

Emitza horrekin, balorazio-batzordeak bi faseetako puntuazioak batu ditu, eta erabaki du aurkeztutako izangaiek prozesua gainditu dutela honako puntuazio honekin:

1. ABIZENA	2. ABIZENA	IZENA	I. FASEA, GUZTIRA	II. FASEA, GUZTIRA	GUZTIRA
Iriarte	Goikoetxea	Aitor	14.5	14	28.5

Horrenbestez, balorazio-batzordeak proposatzen du Eragin Teknologikoen eta Segurtasun Arriskuen Unitateko arduradunaren lanpostua Aitor Iriarte Goikoetxea jaunari esleitzea.

Balorazio-batzordeak erabakitzen du emitza horiek 2025eko martxoaren 12an argitaratzea, bidezkoak diren izapideak egindakoan.

#### 2. Balorazio-batzordearen hurrengo bileraren deialdia egitea.

2025eko martxoaren 24an, 11:00etan, beste bilera bat egitea erabakitzen da. Bilera horretan erreklamazioak eta atzera-egiteak ebatziko dira, halakorik aurkeztuz gero; behin betiko esleipen-proposamena egingo da, eta proposamen hori Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren lehendakariari bidaliko zaio.

Bertaratutako guztiek adierazi dute deialdi horren berri izan dutela.

Nik, batzordeko idazkaria naizenez, horren guztiaren fede ematen dut, batzordeburuak ontzat emanda.

Idazkari titularra:  
Ainara Ugalde López andrea

#### Ontzat emana

Batzordeburu titularra:  
Eduardo Jacob Taquet jauna

#### Batzordekide titularra

Juan Carlos Barredo Salazar jauna